

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Enpresaren produktuak guk geuk sortuko ditugu lehengaiak hornitzailei erosiz.



Fabriketan bertan sortutako produktu batzuk erakusketa dendetara eramango ditugu bertan bezeroak produktuak ikus ditzaten.

Erakusketa dendaz gain, internet bidez ere egingo dugu publizitatea, bai sare sozialetan (gaur egun gure enpresa ezagutzera eramateko modu eraginkorrena da eta), bai iragarkietan.

Produktua egiteko materialak garraiatzaileek (gure langileak izango direnak) ekarriko dituzte, eta salmentak egiteko orduan ere, gure langileak haien kabuz iritsiko dira etxeetara edota eskaturiko lekuetara.

Funtsezko jarduerak azaltzean aipatu bezala, gustatuko litzaigukeen jarduera bat aliantzak egitea izango litzateke; autoak fabrikatzen eta saltzen dituzten enpresa batzuekin kontaktua sortuz, haiek gure produktua zuzenean autetan ezartzeko edota bezeroei eskaintzeko.